

Krisialdia

Erromatarrak nagusi izan ziren garaiak –historiako beste edozein garaik bezala– bilakabide gorabeheratsua izan zuen. Erromatar ereduaren ezarpena ez zen berdina izan leku guztietan, eta ez zuen eragin bera izan toki eta jende guztiengan. Dena den, eskema politikoa, hiriak, galtzadak, merkataritza lehenago ezagutu gabeko eskalan garatu zen Goi-Inperioaren garaian, eta gure eskualdeetan ere nabarmendu egin zen. Gure aroko lehen bi mendeetan lortu zuen “erromatar ereduak” bere hedadurarik handiena. II. mendean, ordea, sistemaren akiduraren lehen sintomak sumatzen hasi ziren, eta III. mendean eragin handiko krisia gertatu zen. Ondokoa, erromatar aldiaren amaieraren kronika da.

Harresiak eraikitzea

III. mendeko krisi hori na baria izan zen Euskal Herrian: hainbat nekazaritza-ustialeku, hiri txikiak, desagertu egin ziren. Hala eta guztiz, zenbait hiri, Astorga-Bordele bideko garrantzitsuenak, sendotu egin ziren garai horretan. III. eta IV. mendeetan zehar harresiak jarri zuten hainbat hirik: *Lucus Augusti* (Lugo), *Legio* (León), *Asturica Augusta* (Astorga), *Gigia* (Gijón), *Veleia* (Iruña), *Lapurdum* (Baiona), *Burdigala* (Bordele). Bide horretatik, hain zuzen ere, salgaiak estrategikoenetako bat esportatzen zuten: Rhineko mugaldean premiazkoa zen mesetako laborea.

IV. mendea

III. mendeko krisia iraganik, halako susperraldi bat gertatu zen. Inperioaren gerra eta politika arazo nagusietatik urrun izatea Iberiar penintsularen aldeko izan zen eta nolabaiteko oparoaldia bizi izan zuen. Landa aldean nekazaritza-bizigune berri batzuk sortu ziren, aurreko aldietan bezainbeste izan ez baziren ere; *Veleia* (Iruña) eta *Lapurdumeko* harresiak eraiki zituzten; *Andelosko* (Andion) urtegia zabaldu zuten; eraberritze-lanei ekin zieten etxebizitza pribatuetan...

Bagaudak

IV.-V. mendeetan, gizarte mugimendu batzuk gertatu ziren, zeintzuk sistemaren aurkakotzat hartu dituzten zenbait historialarik. *Bagauda* horiek indarrezko gatazkak izan ziren; lurjabe txiki pobretuak, zerga gero eta handiagoz estaturiko hiriko lan gilegoa eta beste era askotariko jendea izan zuten gatazka haietako protagonista. Euskal Herrian gisa horretako gertakarien bat izan zen *Uharte-Arakil* aldean kokaturiko *Aracillum*en.

Barbaroak

V. mendearen hasieran, herri barbaroak –alanoak, sueboak eta bandaloak–, Pirinioetako igarobideak zeharkaturik, Iberiar

penintsulan sartu ziren. 411. urtean hitzarmena egin zuten Erromatar Inperioaren administrazioarekin: sueboek eta bandaloetariko batzuek –asdingoek– *Gallaecia* beretu zuten; alanoek Lusitania eta Carthaginensis zirelakoak beren gain hartu zituzten; gain erako bandaloek –silingoek– Betica jaso zuten. Penintsula osoan Tarraconensis probintzia bakarrik geratu zen Erromaren eskuetan, eta Hego Euskal Herriko lurraldeak haren barnean zeuden.

Harpeetan bizi

V. mendearen hasiera fenomeno bitxi baten abiapuntu gertatu zen: Historiaurrearen amaieratik abandonaturik zeuden harpeak bizitegi gisa erabiltzen hasi ziren berriro, baita kasu askotan bizigune iraunkor gisa erabili ere. Antza denez, ondoko urteetan pisu handia hartuko zuen eremitismo deitutako fenomenoaren aurrekaria izan zen hura. Euskal Herrian hainbat kasu aipa daitezke: Peña Parda, Los Moros, Solacueva, Santa Coloma, Kobairada edo Los Husos Araban; Peña Forua Bizkaian; Iruaxpe III Gipuzkoan, edo Abauntz Nafarroan. Halaber, Galietan eta Inperioko beste hainbat lekutan antzeko kasuak agertu ziren. Gainera, une beretan beste kokagune estraterik mota bat berreskuratu zen: Burdin Aroko herrixka zaharrek zeuzkaten antzinako muinoak (Ozio, Portilla, Astulez, Berbeia edo Buradon Araba aldean).

Amaiera

Aldaketak gorabehera, hirietako bizitzak aurrera jarraitzen zuen. Erromatar estatua 476an mendebaldean desagertu zenean ere, barbaroek Romulo Augusto azken enperadorea aginpidetik egoztean, salgaiek galtzadetan zehar zebiltzaten, eta hainbat bizigunetara iristen ziren, hala hirietara – Veleia edo Pompaelo– nola nekazari gunetara –Las Ermitas (Arabako Getaria). Zenbait kokagune, Veleia esaterako, hiri izaera galduz, apurka-apurka biztanleak galduz joan ziren; beste zenbait herri, hala nola Pompaelo eta Lapurdumek, beren ibilbide historikoa jarraitu zuten, jadanik Erdi Aroan sarturik.